

# Antoine d'Abbadieri buruzko oharrak

(Notes about Antoine d'Abbadie)

Arana Martija, Jose Antonio\*  
Karmelo Etxegarai, 6  
48300 Gernika

\* Euskaltzain osoa  
Eusko Ikaskuntza

---

*Antoine d'Abbadieri buruz Revue des Basses-Pyrénées et des Landes aldizkarian agertzen diren datu biografiko batzuk ematen dira, gehien bat Parisko euskaldunen eta biarnesen arteko harremanetan Abbadiek zeukan itzala azalduz. Fisika, astronomia eta geodesia zientziak zirela eta, Jose Ignacio Arana jesuitarekin gurutzatu zituen gutunetan agertzen diren datuak ere ematen dira. Eta azkenez, Lécluse eta Darrigolen liburuen babesle Arnaud-Michel aita eta ez Antoine semea izan zela adierazten da.*

*Giltz-Hitzak: Biarnesekin harremanak. Familia eta Urrustoi deitura. Astronomia. Geodesia. Fisika. Bibliografia.*

*Se ofrecen unos cuantos datos biográficos en torno a Antoine d'Abbadie aparecidos en la Revue des Basses-Pyrénées et des Landes, principalmente referentes al prestigio del que gozaba d'Abbadie entre vascos y bearneses de París. También se ofrecen los datos que aparecen en la correspondencia que sobre física, astronomía y geodesia sostuvo con el padre jesuita José Ignacio Arana. Por último, se aclara que el patrocinador de los libros de Lécluse y Darrigol fue el padre, Arnaud-Michel, y no el hijo, Antoine.*

*Palabras Clave: Relaciones con los bearneses. La familia y el apellido Urrustoi. Astronomía. Geodesia. Física. Bibliografía.*

*On présente quelques données biographiques concernant Antoine d'Abbadie parus dans la revue des basses-Pyrénées et des Landes, se référant principalement au prestige dont jouissait d'Abbadie parmi les basques et les béarnais de Paris. On présente également des données apparaissant dans sa correspondance avec le père jésuite José Ignacio Arana sur la physique, l'astronomie et la géodésie. Et pour terminer, on précise que le promoteur des livres de Lécluse et Darrigol fut le père, Arnaud-Michel, et non le fils, Antoine.*

*Mots Clés: Relations avec les béarnais. La famille et le nom Urrustoi. Astronomie. Géodésie. Physique. Bibliographie.*

## I

*Revue des Basses-Pyrénées et des Landes* 1883.eko urtarrilean kaleratu zuen lehen zenbakia, sortzaileen artean Antoine d'Abbadie agertzen delarik. Otsaileko alean "Le Banquet Basque-Béarnais" txostentxoak dakar, non azaltzen den 1882an hasita ospatzen zirela Euskaldun-Biarnesen Elkarteak antolatutako oturuntzak. 1883.ekoan 133 lagun bildu ziren eta mahaipuruan gordeta zeukan tokia Abbadie jaunak, baina ezin etorria adierazi zuen eta Reclus jaunak hartu zuen haren tokia "en l'absence d'Antoine d'Abbadie, qui ne devait revenir que quelques jours plus tard de sa mission scientifique à Port-au-Prince". Aipatu aldizkariak, martxoko kronikan zera dio: "Le 26, à la Académie des Sciences, M. Antoine d'Abbadie a donné lecture d'un rapport relatif aux détails d'installation de la mission qu'il a dirigée pour l'observation du passage de Vénus dans l'île d'Haïti". Hurrengo urteko bazkarian ere, otsailaren 2an, mahaipuruan zegoen Abbadie jauna, baina dirudienez oso lanpeturik zebilen honako hau irakurtzen baita: "M. Antoine d'Abbadie avait annoncé son arrivée seulement pour neuf heures. Avec sa ponctualité bien connue, notre éminent compatriote vient s'asseoir à heure dite à la place qui lui est réservée". Eta hurrengo urteetan ere Biarno eta Euskal Herriko adiskideen artean agertzen zen Abbadie jauna.

## II

Aipatu aldizkariak, 1884.eko abenduko kronikan diosku 18an, Biarritzeko Saint André eliz anglikanoan, Henriette d'Abbadie ezkondu zela Henri Bernard de St-Affrique jaunarekin. "Mlle. d'Abbadie est fille de Charles d'Abbadie, propriétaire du château historique d'Echoux, dans la vallée de Baïgorry, qu'il a merveilleusement restauré. Elle est la nièce de notre éminent compatriote M. Antoine d'Abbadie, membre de l'Institut et du bureau des longitudes". Ezkontzaren beste xehetasun batzuk ere ematen ditu aldizkariak (598 orr.).

## III

1883.eko martxoaren kronikan zera irakurtzen da aldizkari horretan: "L'*Officiel* du 7 annonce que MM. Michel-Arnaud d'Abbadie, Charles-Jean d'Abbadie et Armand-Michel d'Abbadie, frères et neveu de M. Antoine d'Abbadie, demandent l'autorisation de s'appeler d'Abbadie d'Arrast. Les Abbadie ne font que rétablir leur nom de famille dans son intégrité primitive. Le nom d'Abbadie vient en affet de l'Abbaye laïque d'Arrast, en Soule, qu'ils ont possédée pendant plusieurs siècles". Hara hor nondik datorkien Arrast edo Urrustoi deitura.

## IV

Astronomia arloan Antoine d'Abbadiek egin zituen asmakizunen berri eman edo emango zaigu zientziari dagokionetik Biltzar honetan. Aurreko lerroetan ikusi dugu, hainbat aldiz aipaturiko aldizkarian, nolako itzala zeukan Abbadiek biarnotar eta euskaldunen artean eta haren bizitzako pasadizo eta ekintzak nolako begirune eta harrotasunez ospatzen zituzten. *Revue des Basses-Pyrénées et des Landes* beti isladatzen zuen ematen zituen kroniketan Abbadieri zegokion edozein berri. Are gehiago zientzia munduan ematen zituen aurrerabideak. 1887.eko alean aipatzen du maiatzaren 9an Parisko Académie des Sciences delakoan txosten bat aurkeztu zuela adierazteko nola *dipleidoskopoaren* bidez finkatzen zen eguzkiaren benetako ordua. "Antoine d'Abbadie a lu une note sur le moyen le plus commode et le plus économique de connaître l'heure à l'aide du dipleidoscope, prisme en verre dont l'un

des angles est fixé dans le méridien parallèlement à l'axe de la terre, de telle sorte qu'au midi astronomique deux images du soleil viennent s'y confondre en une. L'*Annuaire du Bureau des Longitudes* permet de ramener cette heure vraie à l'heure légale". Bilera berean azaldu zuen Abbadiek beste tresna bat, besteak baino emaitza zehatzagoak eskaintzen zituen: "C'est une lunette, munie de cinq fils équidistants, à l'aide de laquelle on vise une étoile dans son passage à chacun des fils, en notant la durée du parcours. Un très facile calcul permet de retrouver à n'importe quel moment de la journée l'heure sidérale ou l'heure civile". 1887.eko maiatzaren 9an aurkeztutako bi txosten hauek Akademiaren agiri eta argitalpenean agertzen badira ere, frantsesez eman ditut aipatu aldizkarian agertzen diren eran ikus ahal izan dezagun nola iritsi izan ziren berriak biarnotar, landatar eta euskaldunen eza-gutzera.

Astronomia, geodesia, fisika eta beste zientzia batzuk ikertzeko eta ikasteko behar ziren tresnak direla eta, badugu beste lekukotasun bat Abbadieren jakituriaz. Euskaltzaindiak Jose Ignacio Aranari, heriotzaren mendeurrenean Azkoitian eskaini zion omenaldian (1996-12-20) jesuita hau bibliografo gisa azaldu nuen arren, Abbadierekin gurutzatu zituen gutunak kontuan izanik, "Urduñako ikastetxean jarri zen laborategirako hainbat tresna eskatzen dizkio Abbadieri Parisera" esaten nuen, lerro batetan laburbilduz zientziarekiko gaia (*Euskera*, 1997, 1-2, 17. or.). Bi zientzia gizon hauen artean izandako harremanetan zerbait gehitzeko une egokia dela gaurko hau uste dut. Urduñako ikastetxean fisika kabinetea antolatzeaz eta hornitzeaz arduratu zen Arana jauna eta 1870.eko azaroaren 24an idazten dio Abbadieri "une lanterne magique" eta beste fisikarako tresna batzuk eskatuz. Ez ziren gutxi izan Abbadiek Paristik bidalitakoak, 1871.eko azaroaren 3an idazten baitio Aranak Hendaiara hiru kutxa jaso dituztela eta laugarren bat falta zela, azaroaren 14an iritsi zena. Badirudi fisika kabinetea taiutu ondoren, astronomiako laborategia eraikitzen hasi zela Jose Ignacio Arana Urduñan 1873 urtean. Urtarrilaren 11n teleskopioen prezioak eskatzen dizkio Abbadieri eta honen erantzuna jaso ondoren gomendatzen dion hiru kristalezko "lunette terrestre" daramana aukeratzen du laborategirako 150 franko alde aurrez ordainduz. Gutun berean (1873-01-25) Urduñan aurkitutako muskuilu fosilduen berri ematen dio, geodesiako gaia ere ukituz. Antoine d'Abbadie, halako gaietan jakitun izateaz gain, aholkulari eta laguntzaile ere izan zela aitor dezakegu.

## V

Ohar bibliografiko bat orain. *Examen critique du Manuel de la langue basque* argitaratu zuen Fleury Lélusek (1774-1845) Baionan 1826an. Idazlan honentzat "Prospectus du Manuel de la langue basque" kaleratu zuen Toulousen urte berean A.M. d'Abbadie izenekoak eta gure Antoine d'Abbadieri datxekio sarritan lan hau. Argi utzi zuen Julien Vinsonek *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque* (Paris, 1891) delakoan (200 zenbakian) *Prospectus* hau ez zela Antoine d'Abbadierena, honen aitarena baizik, hots, A.M. d'Abbadie (Arrastoitarra)rena hain zuzen. Arnaud-Michel d'Abbadie, aita, eta familia Toulousera etorri ziren bizitzera 1820an eta bertan prestatu eta argitaratu zuen aitak lan hau. Baina 1921ean Albert Léonek Bordeleko unibertsitatean eman zuen hitzaldi baten Antoine semearena zela *Prospectus* esan omen zuen. Hurrengo urtean, 1827an argitaratu zen Baionan Jean Pierre Darrigolen (1790-1829) *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque* eta Léonek, aipatu hitzaldian, liburu honi buruzko oharrak Antoine d'Abbadierenak zirela esan omen zuen. Hara zer diotson Julien Vinsonek Albert Léoni 1921.eko uztailaren 24an idatzitako gutunean (*Gure Herria*, 1921, 676 orr.) "C'est bien en 1829 que la mémoire de l'abbé Darrigol a obtenu le prix Volney, mais la *dissertation* n'en est pas la reproduction exacte: la

mémoire était plus développé. M. d'Abbadie n'a pas pu s'occuper de Darrigol ni de Lécluse parce que né en 1810, il était évidemment trop jeune. C'est le père des trois frères d'Abbadie qui encouragea Lècluse et paya les frais de son Manuel. (Antoine d'Abbadie me l'a souvent répété)".

Eta besterik ez, gaurkoz.